

GIPUZKOA

Egoitz Zapiainek etxeko sagardoari buruzko hitzaldia eskaini zuen Borondegin

YARZA ERREZIL

6 diciembre 2014
00:21

Bihar, igandean, Errezilgo Sagarraren eguna izango da herrian eta horren harira Atala Kultur elkarteak, Ibarbia Errezilgo Errezil Sagarra elkarte sortu berriaren laguntzarekin, etxeko sagardogintzari buruzko hitzaldia antolatu zuen. Egoitz Zapiainek, Zapiain sagardotegiko kalitate arduradunak, eskaini zuen hitzaldia eta bertara hurbildu ziren etxean sagardoa egiten zuten herritarrek.

Zapiainek sagardo ona egiteko oinarritzko arauak azaldu zituen eta bertaratu zirenen zalantzak ere erantzun zituen. Adierazi zuenez «sagardo ona egiteko sagar onak behar dira, kolperik ez dutenak», eta ahal den neurrian garbiak egotea ere garrantzitsua dela esan zuen, bai sagarrak bai kupelak.

Era berean, azaldu zuen sagardoa noiz kontsumitu nahi den jakin behar dela nola egin jakiteko. Horrela, lau sagar multzo egin zituen, garratzak, mikatzak, gozoak eta garratz-mikatzak eta bakoitzaren ezaugarriak deskribatu zituen: «gozoek gero alkohol gehiago izaten dute, mikatzetan muztioa irakitea gehiago kostatzen zaio eta garratzetan temperatura azkarrago hartzen da», eta hiruen nahasketaren bitartez lortzen da norbere gustuko sagardoa egitea. Sagarrondoak zaintzearen garrantzia ere aipatu zuen, «ondo zaindutako sagastiek produkzio askoko urtetan gehiago ematen dutelako eta produkzio gutxiko urteetan zaindu gabekoek baino sagar gehiago ematen dutelako».

Solasaldia amaitzeko Zapiainek berak eramandako sagardo ezberdinak dastatzera eman zituen usain eta zaporeak ezberdintzeko, eta herritarrek beraiek egindako sagardo berriak ere eraman zituzten, guztien artean dastatu eta adituaren iritzia jasotzeko, beren edaria hobetzeko asmoz.




Herritarrek sagardo dastaketa ere egin zuten. / YARZA



Tiene sentido

Hasta el más exigente se convence cuando le explicas el método Dentix.
www.dentix.com



Aprende chino en meses

Prometértelo no nos hace únicos, demostrártelo sí. Prueba 8Belts durante ocho días.
www.8belts.com

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.